



3 KONPOSTA

**Konpostaren
inguruko hitzaldia
Artelatzen eskutik**

Duela hamar hilabete hasi ziren Zabaletako auzokide batzuk sortzen zuten zabor organikoa konposta egiteko erabiltzen. Prozesu horretan gehiago sakondu eta sortutako zalantzak argitzeko aukera izan zuten ostiral arratsaldean Aitziber Sarasola Artelatzen Kooperatibako aditu andoaindarrak eskaintako hitzaldi praktikoa bidez.

4-5 ERREPORTAJEA

**Azti-Tecnaliako
ikerlariak aingira
Oriara ekarri asmoz**

Oria ibaiak betidanik eduki du angularekin lotura estua, baina azken urteotan populazioa nabarmen jaitsi da. Egoera hori irauli asmoz, Azti-Tecnaliako ikerlariak populazioa ugaltzeko hainbat formula lantzen ari dira. Gai horren inguruan gehiago jakiteko, Estibaliz Diaz biologoarekin ere aritu gara solasean aingiraren birpopulaketa formula desberdin horien ezagutzea asmoz.



Aurrekontu arduratsuak aurkeztuko dira gaur Udalbatzarrean

2008ko aurrekontuen kopurua %43an murriztu dute

Lasarte-Oriako Udalak 2012 urteko aurrekontuak aurkeztu zizkien ostiralean hedabideei. Gaur arratsaldeko 17:00etatik aurrera egingo den ezohiko batzarrean aztertuko dira. Bildu, EAJ eta LOHP alderdien aldeko bozkekin onartuko direla aurreratu zuen alkateak prentsurrekoan. Bihar, herriari irekia egongo den aurkezpena egingo dute, Villa Mirentxun arratsaldeko 19:00etatik aurrera.



Pablo Barrio alkatea, Estitxu Alkorta Ogasun saileko arduraduna eta Udal gobernuko zinegotziak aurkezpenean.

Pablo Barrio alkateak, Estitxu Alkorta Ogasun saileko buruak eta Udal Gobernuo kideek ostiralean 2012. urteko aurrekontuak aurkeztu zituzten.

Lehenik, alkateak lau urtez aurrekonturik gabe lan egin dela gogoratu zuen. "PSE-EE ez zen gai izan aurrekontu batzuk onartzeko".

Jarraian, Pablo Barriok gaur aurkeztuko diren aurrekontuak arduratsuak direla adierazi zuen, "ezin dugu etorkizuna arriskatu".

Horregatik, 23.400.000 eurotako aurrekontuak izango dira. Bilduko alkateak kopuru honetara iristeko murrizketa handiak egin direla azaldu zuen, "2008ko aurrekontuak %43a jaitsi ditugu. Egoera ekonomikoarekin bat eginez".

Eta horren adibide gisa,

politikarien eta konfiantzazko karguen soldata 200.000 eurotan murriztu dela azpimarratu zuen.

Gastuetan murriztu baldin bada ere, obrak egin eta zerbitzuak hobetuko direla jakin arazi zuen alkateak. Hala nola, Michelingo futbol zelaiaren aldaketa, Adarra kaleko urbanizatzea, kiroldegiko kardiobaskular gela berritzea edo Hiribusa zerbitzua berriro martxan jartzea.

Sarrerak ez handiak

Ogasun saileko arduradunak Estitxu Alkortak aurrekontu zentzudunak direla onartu zuen.

Izan ere, hauetan "benetan izango diren sarrerak bakarrik izan dira kontuan". Gainera, Fondo Foralak emango duen kopuruaren irakurketa egin eta aurrekontuetan esandakoa

baino gutxiago jaso dela azaldu zuen.

Era berean, "jangela eta haurreskola Eusko Jaurlaritzaren esku geratuko dira aurten eta horrek ere gastua txikituko du," gogoratu zuen EAJko zinegotziak.

Hala ere, Udal berriko mantenua eta Gaztelekua martxan jartzeak gastuak sortuko dituela azpimarratu zuen. Baina "hartutako neurriekin gastu hori orekatzea espero dugu" jakitera eman du.

Gauzak honela, Udalak Foru Aldundiari zor dion dirua 2012 eta 2013 urteetan bueltatuko diola jakin arazi zuen eta 2014 urtetik aurrera "egoera hobea" izango dela aipatu zuen.

Hau guztiaz gain, aurrekontuetan berrikuntza bezala Parte-hartze saileko aurrekontua dagoela aipatu zuen eta

hurrengo urteetan Udalak arau subsidiarioak landu eta aldatuko dituela aurreratu zuen.

Azkenik, alkateak herritarrei asteartean Villa Mirentxun egingo den aurkezpena joateko gonbita egin zien. "Bertan aurrekontuen ezaugarri nagusiak ezagutu ahalko dituzte".

Emendakinak

Bestalde, PSE-EEK gaur aurrekontuei egingo dizkien emandakinei buruz ere mintzo zen Bildu.


Bilduko Gorka Lizarraga zinegotziak azaldu zuenez, PSE-EEK udalak dituen sarrerekin inbertsioak egin daitezkeela adierazi du.

Bilduren ustez, gobernuan egin zituzten urteen herentzia da hori. "Norbaitek esan behar die burbuila immobiliarioak eztanda egin duela" adierazi zuen.



Bideo Lagunak

ASPE garbigailua 6 kg/ 1000 bm
259 €



**EUROCOPA IKUSTEKO
eskaintza berezia
telebistetan**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Adituak dio



Nagore Perez

Erketz dantza taldeko kidea

San Joan sua

Iritsi da San Joan bezpera, eta honekin batera uda, beroa, opor-erakundeak eta festak. Urteko egunik luzeenari ongi etorria emateko San Joan Sua ospatzen dugu Euskal Herrian.

Euskal mitologian egun berezia izanik, ez da harrizkoa gaur egun arte magiaz beteriko eguna izatea. Gauak, sentimendu berezia sorrazten du askorengan, eta amets bezelakoak ezin desioz beteriko egunaz gozatzeko dute. Beste batzuentzat, ordea, ikasturteko liburu eta apunteak sutan erretzeko aukera ematen duen momentua besterik ez da.

Suari lagunduz, Euskal Herriko beste ohitura batek hartzen du parte, dantzak. Aitzinean gizonezkoek soilik dantzatzeko zuten soka-dantza ohitura bihurtu da herri askotan; baina, ohiturak ohitura, hemen ere neskak gara nagusi orain. Udaleko korporazioak dantza egiten dio herriari esker ona emanez. Gurean, ordea, urte askotan herriak dantzatu izan dio korporazioari. Baina aurten ez!! Aurten Pablo Barrio alkateak eta Tasio Arrizabalaga zinegotzi gazteenak gogotsu eta indartsu hartu dute erronka, eta ausardia handiz herriari egingo diote agurra. Baina ez beraiek soilik, beste zinegotzi zein herritarrek ere lagun izango ditugu.

Lehenengo, San Joan dantza egiten da udaletxe aurrean, eta ondoren, Okendo plazan, soka-dantzari ematen zaio hasiera. Sokak, herriaren bateratasuna adierazten du, "zubien" bitartez elkar lotuta gaudela erakutsiz. Denok gara sokaren partaide, zuen partaidetza ere ongi etorria da suaren inguruan. Eta bukaeran, kalejira jendetsu eta koloretsuarekin batera, meta piztuz, udarari emango diogu hasiera.

ANIMATU ETA PARTE HARTU!!
GOZATU GAUAREN MAGIAZ!!

Talaiatik

San Juan suaren sorginkeria

San Juan egunaren bezperako suak beste behin Okendo plaza hartuko du larunbatean. Erketzekoak arduratuko dira suaren inguruan dantzatzeaz eta hauekin batera asko izango dira honetan parte hartzera animatuko diren herritarrek ezusteko bat edo beste tarteko.

Urtero ospatzen den festa da hau eta antzinatek euskaldunen ohituren baitan errotuta dago. Udako soltizioa ospatzeko jaia da berez San Juan bezperan egiten dena. Urteko egunik luzeena eta gaurik laburrena da, hemendik aurrera, egunak laburtzen joango dira eta gauak luzatzen. Ospakizun paganoa izaki, geroago kristautasunak San Joan Bataiatzailearekin lotu zuen su festa berezi hau eta horrela mantendu da belaunaldiz belaunaldi.

Eguzkiaren boterea nolabait irudikatzen duen errituan oinarritzen den tradizioa da San Juan bezperako sua. Gure artean, suaren inguruan dantzatzea eta hiru aldiz salto egitea da ohikoena. Hau eginda espiritu txarrak uxatzen ditugu eta urte ona ziurtatzen omen dugu horrela.

Honetaz gain, oso zabaldua dagoaldatu nahi dugun hori sugarretara botatzeko ohitura, erretzearen botere berriztatzaile eta garbitzaileari erreparatuz. Akaso ideia ona litzateke gau honetan udalaren baitan azken asteotan jazo-tako desadostasunak sutara botatzea, horrela, herritarren ordezkari diren horien artean harremanak berriztatu eta San Pedro jaiak behar beste babesarekin ospa daitezela, bakean eta jai giro onean.

Hitz eta pitz

San Juan surik egiten duzu?



Garbiñe Caramazana

Sasoetan, Andatza plaza dagoen lekuan, egiten zen su handi bat. Guk ere gure menditxoan egiten genuen eta oroitzapen polita daukat, han aritzen ginen jolasten. Dendaz denda pasatzen ginen kartoiak jasotzen. Oso txikiak ginen orduan, gero handitzean Hernanira joaten ginen. Nire amaren herrian, Oiz-en, Doneztebe ondoan, su txiki batzuk egin eta salto egiten dute.



Joxean Salsamendi

Auzo bakoitzak bere sua egiten zuen, guk elizaren atzean. Handia egiten saiatzen ginen eta horretarako materiala Hipodromoan edo Buenos Aires-en biltzen genuen. Gero saltoka ibiltzen ginen. Urte batean erori eta gauza larririk ez, baina, erre egin nintzen. Familia osoa joaten ginen. Oraindik ere normalean joaten naiz sua ikustera, gau oso polita da.



Marikarmen Elexpuru

Betidanik ezagutu dut. Michelin-en egiten genuen, ahalik eta ederrena: gainean panpin batekin, inguruko handiena zen. Suaren inguruan festa handia egiten zen. Gainean ere bai, behin anaia txikia atera nuen sutatik. Erre egin zen. Txikierriko Joxe Ramon etortzen zen filarmonikarekin eta festa handia egiten zen. Orain, makuluekin nabilenetik jada ez naiz joaten.



Alaitz Esnaola-Ane Irurtia

San Juan gaueko sua ikustera joaten gara. Okendora eta aurreko urteetan Atso-bakarrera. Behin edo behin eraman izan dugu eskolako lanen bat edo liburu zaharren bat erretzeko. Beste batzuek ibiltzen dira suaren gainean salto egiten, baina guk ez dugu sekula horrelakorik egin. Ez gara ausartzen. Gustatzen zaigu eguna, berezia eta polita da dantza.

Iruditan



1997ko argazkian Ana Urchuegia alkatea San Juan sua pizten urtero egin ohi zuen moduan.

Lasarte-Orian ospakizun berria San Juan suarena

Ohitura zaharra da gure artean ere San Juan sua baina Lasarte-Oria udalerria ez zenez, jaia auzotan eta lagun koadrilan ospatu ohi zela diote bizilagun zaharrenek. Lasarte-Oria herri denetik ospatzen da San Juan sua jai giroan eta hasiera batean Brigidarren plazan egiten zen nahiz eta lekua behin baino gehiagotan aldatu urtetik urtera. Ohiko irudia ekarri dugu, 24 urtez herriko alkatea izan zen Ana Urchuegia dugu Juantxi Ugarte jaietako udal teknikariarekin batera sua pizten. Urtero errepikatzen zen irudia zen alkateak pizten baitzuen beti sua.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

INGURUMENA

Konpostaren sekretuak

Artelatz Kooperatibako Aitziber Sarasola adituak konpostaren inguruko hitzaldia eman zuen ostiralean

Abuztua eta iraila bitartean hasi ziren Zabaleta auzoko hainbat familia konposta egiten. Hamar hilabete hauetan sortu zaizkien galdera eta zalantzak argitzeko aukera izan zuten Aitziber Sarasola aditu andoaindarraren hitzaldia entzutera hurbildu ziren 25 lagunek..

Sortzen dugun zaborren materia organikoa aprobetxatu eta usteltzen utzita, lurra aberasteko ongaria ateratzea du helburu konposta egiteak.

Zabaleta auzoan 16 familiak konposta-gune komun bat abiarazi zuten 2011ko udaran eta horretaz gain, bada bere kaxa etxean egiten duen auzokiderik ere. Guztiek izan zuten ordutik sortutako zalantzak argitzeko aukera eta bakoitzaren lana ebaluatzen ere aritu zen Sarasola aditua konpostagune komunean.

Funtsezko lau arauak

Sarasolaren hitzetan, konposta egiteak jolas baten antzekoa izan beharko luke, eta jolas



Konpostagune komunean azalpen praktikoak eman zituen Aitziber Sarasolak.

guztien gisan, konposta egiteak ere baditu saihestezinak diren arauak, kasu honetan lau.

Batetik, konposta lurzoru lauaren gainean jarri behar da derrigorrez, lurrarekin kontaktu zuzenean, pisu asko hartzean albo batera eror ez dadin eta sagu zein arratoiek sarbidea zailago izan dezaten.

Bestetik, beharrezkoa da materia organikoa %50 berdea (hezea) eta %50 marroia (lehorra) izatea eta gutxienez hiru egunetik behin materia organiko freskoa botatzea.

Gainera, komenigarria da

astean behin edo bitan konposta nahastea, konposta egiten lagunduko duten mikroorganismo eta xomorrok oxigenatu daitezten.

Azkenik, hezetasuna kontrolatu beharra dago, konpostagunea hezeegi egotea ez baita ona kate-trofikoa (bizidun batetik besterako elikakatea, funtsezkoa konposta egiteko) eten dezakeelako.

Sarasolaren hitzetan, konposta egoera onean egongo da hamar hilabete pasata eskuarekin hartu eta "plastilina" itxura baldin badauka.

Bila Hadi proiektuaren erakusketa eta diska-liburuaren aurkezpena

Biladi Hadi brigadak 2010eko uztailean eta irailean palestinar lurretara egin zuen kultur elkartasun ekimena azaltzen duen "Biladi hadi, hamaika begirada Palestinara Euskal Herritik" proiektua aurkeztuko da gaur Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur-etxean.

Kafetegiko ormetan proiektua osatzen duten argazki erakusketa eta irudiak jantzen dituzten euskal kulturgintzako idazle, kazetari eta hainbat eragileren iruzkin testuak izango dira ikusgai.

Gainera, argazki hauetan hiru herritar ikusteko aukera izango da, Arramazka taldeko Aroa eta Aitzol Lasa eta Porrotx pailazo bihurria.

Erakusketa berezi hau urte osoan zehar Euskal Herriko hainbat herritan egon da eta oraingoan gure herrian izango da ekainaren 22ra arte, arra-



Diska-liburuko portada. Honetan proiektuko argazkiak eta hainbat istoria aurki daitezke.

tsaldeko 17:00etatik 20:30era.

Diska-liburua

Honetaz gain, ekainaren 20an, asteazkenean 19:30ean Aroa Lasa herritarrak eta brigadako beste bi kidek koordi-

natutako diska-liburuaren aurkezpena egingo da.

Aurkezpenean, Aroz gain, Aitzol Lasa Arramazka taldeko kidea eta brigadan parte hartu zuen Argia aldizkariako Axier Lopez izango dira.



EUSKARA

Gutun lehiaketa Muntteri-AEK-n

Muntteri-AEK euskaltegiko 3. urratseko ikasleek gutun lehiaketa bat antolatu zuten, idazmena lantzen jardueran arituz, "lagunarteko gutunak" hain zuzen ere. "Peti" ezizenez, Laura Palaciosek idatzitako gutuna izan zen diploma lortu zuena.

Horrela, irakaslek egoera bat emanda, gelako lagun bakoitzak gutun bat idatzi behar zuen. Egoera honako hau zen: "Marokora joan zara oporretan. Bidaia zoragarria izan da. Basamortuko kontuak ezagutu eta gozatu dituzu. Etxerantz berriro, Marrakets hirian eman duzu azken gaua eta bertan pipatu ere egin duzu opioa. Orain espetxean esnatu zara eta bertatik idatziko diozu zure lagun minari eskutitz hau".

Ondoren, euskaltegiko horman erakusketa prestatu eta gutun onena hautatzera gonbidatu zituzten gainerako maila guztietako ikasleak.

SAN PEDRO JAIK

Kamisetak tindatzeko aukera

San Pedro jaietarako kamiseta oraindik prest ez duten Lasarte-Oriako LH3 eta LH6 maila arteko gazte koadrilek aste honetan haien kamiseta berezia egiteko aukera dute, Ttakun Kultur Elkartearen eskutik.

Gaztetxoek ekainaren 20an, asteazkena, Landaberri-Garaikoetxean eta ekainaren 21ean, ostegunean, 15:30etatik aurrera kamisetak tindatuko eta apainduko dituzte. Antolatzaileek gogora arazten dute, ekintzarako kamiseta zuri bat eraman behar dute.

SAN PEDRO JAIK

Zikero afarirako txartelak salgai

Urtero legez, Ttakun Kultur Elkartek San Pedro egunean, ekainaren 29rako, zikero afaria antolatu du.

Afaria Okendo plazan izango da iluntzeko 21:00etan. Txartelak salgai daude dagoeneko Ttakunen eta Jalgin 20 euroren truke. Txartela eskuratzeko azken eguna ekainaren 25a izango da.

SAN PEDRO JAIK

Sorgin Dantzako zapiak salgai

Ttakun Kultur Elkartek Udalaren laguntzaz Sorgin Dantza antolatu du, San Pedro jaietako lehen egunean, ekainaren 28an.

Honetan parte hartzen dutenek Sorgin dantzako zapia eraman behar dute. Hau eskuratzeko bi aukera daude, bata aurreko urteetan atera den norbaiti eskatzea edo Ttakun kultur elkartean erostea. Zapiak 9 euro balio ditu.

ESKULANAK

Celestino Riveraren azken lanak

Celestino Rivera artistak lan berri bat amaitu du. Oraingoan, Donostiako Araba parkean dagoen Maria Cristina erreginari egindako monumentuko frisoa harrian zizelkatu du.

Lana hareharri alkalinoan egin du eta hiru edo lau hilabeteko lana izan da.

Honetaz gain bere amaren erretratu bat ere egin du. Hurrengo proiektua kristalean egingo duela aurreratu du.



Aztiko ikerlariak Oria ibaira aingira ekarri nahian

► *Orian aingira berreskuratzeko lanetan ari dira Azti-Tecnaliako ikerlariak.*
 ► *Hau egiteko modu eraginkorra zein den ikertzen ari dira oraindik.*

Azti-Tecnaliako biologoek aingira europarra berreskuratu nahi dute eta bere populazioa ugaltzeko ahaleginetan hainbat formula erabiltzen ari dira Oria ibaian. Erreka honek urteetan jasan duen kutsadura dela eta hainbat izan dira animalia honek aurkitu dituen oztopoak, askotan desagertzearinoko ondorioekin. Oztopo hauek kenduta, biologoak espezie honen birpopulatu saiakera egiteko lanetan ari dira. Oraindik oso goiz da lanek eragina izan duten jakiteko baina egindako lanaren inguruan hitz egin digu Aztiko Estibaliz Diaz biologoak.

Maider AZURMENDI

Oria ibaiak zeharkatzen du Lasarte-Oria. Erreka honi begira eta lotuta hazi da urteetan zehar herria eta bertako eragile ekonomiko garrantzitsua izan da honen inguruan jaioetako industriari esker. Egunero ikusten badugu ere, ez dago gaizki ibaiaren hainbat ezauzgarri gogora ekartzea.

Oriak 75 kilometroko luzeera dauka eta honen ibaiadar nagusiak dira Agauntza, Amezketza, Araxes, Zelai, Urtsuan, Asteasu eta Leitxaran. Gipuzkoako arro handieneko ibaiak du eta 54 udalerririk hartzen ditu bere ibilbidean.

Industriaren urte indartsuenetan Oria izan zen enpresa horien produktzioaren ondorioak gehien pairatu zituen. Fabriketako hondakinak kontrolik gabe isurtzen ziren erreka honetara eta noski, azkenean bertako animalia eta landare espezie askoren hil eta desagertzea eragin zuen.

Azken hamarkadetan araudi ezberdinak lagun, enpresek ez dituzte halako isuriak egiterik eta hori antzematen joan da, erreka garbiago baten alde.

Kutsaduraren ondorioak

Ibaiak urteetan kutsadura tasa altuak izan ditu, oraindik 2009an egindako ikerketan batean, Oriaren kutsadura maila Europar Batasunak ezarritako neurrietatik gora kokatzen zen. Zehazki Eus-

asaldatzea, kutsadura, ibaie-tan alde batetik bestera joateko animaliak aurkitu dituen oztopoak, espezie beraren gehiegizko arrantza zenbait eremutan kalte handiak eragin ditu, gertatu diren aldaketa ozeanografikoak, gaixotasun eta bizkarroiek ere besteak beste eragin handi izan dutela ahaztu gabe.

Kudeaketarako plana

Euskal Autonomia Erkidegoan ibai-aingira kudeatzeko plana 2010eko urrian onartu zuen Europako Batzordeak eta Europako Kontseiluaren 1100/2007 erregelamendua (2007ko irailekoa) ondorio da.

Erregelamendu horrek ibai-aingiraren populazioa berreskuratzeko neurriak arautzen zituen eta horrekin batera, animalia honen jarraipena eta ikerketa programak garatzeko ere atak zabaltzen zituen.

Programa honek oso neutruenak ibai-aingira izan da. Anguilla anguilla, espezie berezia da oso ikuspegi biologikoari erreparatuta. Animaliak berak interes zientifikoa handia du baina gure inguruko ekonomian ere izandako eragina azpimarratzeko da. Animalia honen arrantza gure inguruan urteetan izandako garrantzia eta ibilbidea aipagarria da oso.

Interes zientifikoa

Oriako animaliarik preziatuenetakoa ibai-aingira izan da. Anguilla anguilla, espezie berezia da oso ikuspegi biologikoari erreparatuta. Animaliak berak interes zientifikoa handia du baina gure inguruko ekonomian ere izandako eragina azpimarratzeko da. Animalia honen arrantza gure inguruan urteetan izandako garrantzia eta ibilbidea aipagarria da oso.

Aingira hala ere, aipatu moduan ez da soilik gure inguru honetan bizi den animalia, ia Europa osoan eta Afrikako iparraldean bizi da berez. Honen berezitasuna da ur gezatan hazten dela eta ondoren, Sargazoen itsasoan ugaltzen den espeziea dela. Bide hau egin ahal izateko animaliak ez ditu oztopoak izan behar eta urtetan hau egitea geroz eta zailagoa izan da kutsadura edota gizakiaren eragina medio.

Azken hamarkadetan, aingiraren populazioak gainbehera handia jasan du Europa osoan hainbat faktore medio: habitatak galdu eta

laburtu egingo da: azaroaren 15etik urtarrilaren 31ra arte, gaur egun, urriaren 15etik martxoaren 15era bitartekoa da.

-Hiru ibai nagusien erre-serba adierazpena egin, Oiartzun, Urumea eta Barbadun, eta bigarren mailako bi ibaetakoena honen baitan Inurritza eta Andrakas kasu. Horrela lau urte dira dagoeneko debekatuta dagoela aingiraren arrantza aipatutako erreka hauetan.

Oria ibaiak egun

Oria ibaiaren egungo egoerari erreparatuz, adituek diote aingiraren egoera hobetu dela azkeneko urte hauetan. "Baina horrek ez du esan nahi bere egoera ona denik".

Kontutan izan behar da aingira europarrak populazio bakar bat osatzen duela beraz, aingiraren egoera orokortasun horretatik abiatuta aztertzea komeni da. Horrela, espezie honen egoera ez da ona izango Europa mailan behar dena izan arte. Eta hau lortzeko oso kontutan izan behar da hori Europar harrizten diren neurrien arabera, aingira izango dela beti. Beraz, gure errektarako plan bat egiteko agindua eman zien.

Besteak beste, animalia honen arrantza murriztea ezartzen du, espeziea hainbat errektan berriro sartzeko neurriak hartzea, habitatak eta ibaiaren arteko loturak hobetzeko lanak burutzea, erakundeek harraparitzaren kontra egitea eta akuikultura-rekin lotutako bestelako ekintza batzuen garrantzia azpimarratzen da.

Arrantza mugatu

Beste zenbait neurrien artean, honakoak dira angula-arrantzari gure inguruan hau egitea geroz eta zailagoa izan da kutsadura edota gizakiaren eragina medio.

Azken hamarkadetan, aingiraren populazioak gainbehera handia jasan du Europa osoan hainbat faktore medio: habitatak galdu eta

-Arrantza-baimenak berri-tzeko neurriak zorrotz bete beharko dira.
 -Kupoa: 2 kg angula arrantzale eta eguneko, modalitate eta arro guztietan.
 -Arrantza-denboraldia



Estibaliz Diaz proiektuko koordinatzailea Mutriken gizentzen izan zituzten animaliak askatzen.



Angulak gertutik ikusita. Hauek dira biologoek errekarra bultzatutakoak.



Aztiko biologo taldeko kide bat angulak errekan sartzen martxoan egindako azken ekimenean.

Estibaliz Diaz Biologoa

“Birpopulaketa formula desberdinak testatzen ari gara”

Guztira hiru formula izango dira ikerlariak frogatuko dituztenak

Aingiraren egoera oso larria da baina hau ez da bakarrik Euskal Autonomia Erkidegoan gertatzen. Europa osoan animalia honen egoera pareko dago eta. Hau babesteko azken urteetan hainbat izan dira garatutako araudiak eta horien artean hemen 2008tik ezarritako plan berezia. Azken honen baitan hainbat erakunde bultzatuta ari da gauzatzen birpopulazioa bilatuko lukeen ekimena.

Estibaliz Diaz Aztiko erre-kurtsu demetsalen sailerko biologoak aingirarekin burutako lanetan jardun da berak erantzun dizkigu ekimen honen nondinorakoak.

Oria ibaiak birpopulatzeko lanetan ari zarete Azti-Tecnaliatik. Zein helbururekin?
 Oraingoz ez gara birpopulatu ari, baizik eta birpopulaketa formula desberdinak testatzen ari gara eraginkor ote diren aztertzeko.

Emaitzak dauzkagunean ikusiko dugu, birpopulatzek merezi ote duen, eta egitekotan zein da hau egiteko erarik eraginkorra.

Aingira europarraren egoera oso larria da, erreklutamentua asko jauzi da eta horren ondorioz, Europar Batasunak Europako herrialdeei errektarako plan bat egiteko agindua eman zien.

Hemen bada halako araudi-rik?

Bai, Euskal Autonomia Erkidegoan adibidez 2008. urtean aurkeztu zen. Plan horretan, neurri desberdinak proposatzen dira arrantza zein ingurugiroari dagozkionak. Plana aurkezterakoan ez geneukan oso argi birpopulazioa gauzatzea komenigarria ote zen, eta egitekotan zein izango zen formularik egokiena. Proiektu honetan, Fundación Biodiversidad, Foru Aldundia, Ura eta EKOLUR erakundeekin elkarlanean, hori ari gara testatzen hain zuzen ere.

Zein da orain arte jarraitu duzun bidea eta zeintzuk eman beharreko hurrengo pausoak?
 Hiru formula desberdin testatzen ari gara.

Lehenengo saioa 2011ko ekainean egin zen Orbelidin, Oriaren behe-ibilgutan, goranzko migrazioan harrapatutako 2.410 angula zahar Ursuaranera eramane ziren

orduan. Bigarren eta hirugarren saioetan berri, Oriako 14 arrantzaleren laguntza izan genuen. Urtarrilaren 24eko gauean harrapatutako 6,464 kg eman zizkiguten hauek gure frogatan erabili ahal izateko. Angula hauen erdia Zegaman bota ziren zuzenean eta beste erdia, berri, bi hilabetez gizentzen eduki genituen Mutrikuo akuikultura-eskolan. Azken hauek dira Agauntza ibaian, Ataunen askatu direnak.

“Formula berriak” probatzen ari omen zarete. Zertan oinarritzen dira formula berri hauek?

Egia esateko, egiten ari garena ez da hain berria Europa mailan. Izan ere, beste leku batzuetan gu testatzen ari garen hiru formula hauek erabiltzen dira egun. Gure kasuan benetan garrantzitsua da jakitea hiru modu hauetatik zein den gure errektan erabiltzeko apropos eta egokiena.

Kontutan izan behar da, formula bakoitzak bere alde onak eta txarrak dituela.

Adibiderik esango al zenuke?

Esaterako, aingirak gizentzeari dagokionez, aingira hauek sendoagoak dira bai baina baliteke gerora ondo ez moldatzea ingurune naturalean. Hau da, gai ez izatea beraiek euren bazka bilatzeko edota harrapariez behar bezala babesten ez jakitea.

Asko murriztu al da azken urteetan aingiraren populazioa?

Esan bezala, Europa mailan orokorrean populazioak oso beherakada nabarmena izan du.

Erreklutamendua dioguna, alegia, gure kostaldetara iristen diren angulen zenbakia, minimo historikoetan dago egun. Hala ere, Oria ibaiaren kasuan datuak bestelakoak direla esan daiteke.



Erreka honen uraren kalitatea pixkanaka-pixkanaka hobetzen joan denez, eta gainera honetan aingiraren bidean zeuden zenbait oztopo kendu direnez, orain dela hamar urte baino aingira gehiago dago egun Orian.

Hala ere animalia dagoeneko desagertuta zegoen Oriako hiru puntutan askatu dituzue angulak. Zergatik?

Bai, populazioa pixka bat hazi da, baina zenbait puntutan guztiz desagertuta zegoen. Horegatik bi arrazoi nagusi izan dira hau egiteko. Alde batetik, leku horietan ez dago aingirarik bertara heltzeko oztopoak zuzuztelako; baina aingira hezteko leku oso aproposak dira aldi berean bertako habitataren kalitateari dagokionez.

Bestalde, bertan aingirak ez dagoenez, ez genituen aingirak markatu behar bertoko populaziotik bereizteko. Markaketak prozesua zailtzen du, eta aingiraren biziraupen eta hazketan eragina izan dezake.

Askatutako hauei jarraipena egingo diezue datozen hila-betetan ezta? Nola?

Askatutako aingiren biziraupen, ugaritasun, hazkunde eta dispersio-tasak alderatzeko arrantza-elektiko bidezko laginketak egingo ditugu datorren udan eta udazkenean. Harrapatutako

aleak kontatu eta neurtuko ditugu horretarako.

Oriako angula biomasa eta gizakiaren eragina aztertzeko asmoa duzue ikerketa sakonago batean. Zergatik? Zer espero duzue aurkitzea?

Espeziearen berreskuratzeko kudeaketa egokia egiteko, ezinbestekoa da errekan gertatzen denaren informazioa edukitzea.

Aingirak errektangiza eragin desberdinak jasotzen ditu eta horiek neurtu behar ditugu kudeaketa egoki bat egin ahal izateko.

Lehenik eta behin, angularen Oriako estuarioko angulen biomasa zenbatu behar dugu eta gizakiak arrantzaren bidez duen eragina aztertu behar dugu eta honekin batera proposamen bat egin honen arrantza modu jasangarriagoan kudeatu dadin aurrerantzean.

Bigarrenik, aztergai den eremuko zentral hidroelektrikoaren ondoriozko hilkortasun-tasa ere kalkulatu dugu eta honen inpaktua murrizteko neurriak proposatu dira. Azkenik, kalkulatu nahi da zenbat aingirek lortzen duten Oria ibaitik irtezen eta Sargazoen itsasora Ozeano Atlantikora, ugaltzea itzultzea. Gipuzkoako ibai honetako esperientzia eredu gisa erabiliko da Espainia iparraldeko arro guztietan espeziearen kudeaketarako.

ATLETISMOA.-



Busto Gipuzkoako txapelketa

LOKEko atletek domina Lgehiago lortu zituzten ekainaren 9 eta 10ean burutu zen Gipuzkoako txapelketan. Hauetan, latuera proban Eneritz Busto irabazle izan zen eta hiru zilarrezko domin eta brontzezko bat lortu zituzten herriko taldeko neska mutilek. Hauetaz gain, Real Sociedad taldean dabilen Iñigo Sevilla-nok ere zilarrezko domina lortu zuen.

Eneritz Bustok altuera proban lortu zuen Gipuzkoako txapela, 1,49 m. marka eginez.

400 metro hesi-lasterketan, Gaizka Ormazabalek zilarrezko domina eskuratu zuen.

Luzera jauzian, lau atleta izan ziren. Ane Galardik zilarrezko domina eskuratu zuen eta garaipenetik zentimetro batera geratu zen.

Maria Eugi eta Jon Ander Bruñok proba honetan 6. postua eskuratu zuten.

Jauzi hirukoitzeko proban, Ane Galardik brontzezko postuan amaitu zuen eta Idoia Olasagasti 7. postuan.

Asier Eizaguirrek bosgarren postua lortu zuen jabalina jaurtiketan.

Azkenik, 4x100 m. lasterketako errelebu deskalifikatua izan zen, lekukoa eraori zitzaielako.

Estatuko gutxienekoa

Txapelketatik kanpo, kadete mailako bi proba izan ziren 300 m. hesi-lasterketa eta pisua eta LOKEko atletak Espainiako txapelketarako marka egitea zuten helburua.

Lehenengo proban Eneritz Busto eta Idoia Olasagastik parte hartu zuten eta Eneritzek Estatuko txapelketan egoteko gutxieneko marka lortu zuen.

Pisuan, berriz, Maider Rekondo eta Oihana Igarritz saiatu ziren, baina ezin izan zuten lortu.

ESKU-PILOTA.-

Intzako alebinak finaletik at

Ezin izan zuten andoingo Gazteleku menderatu

Udaberri Txapelketako ekialdeko finalerdia jokatu zen larunbat arratsaldean Michelingo pilotalekuan, alebin mailan. Intzako mutilek Gaztelekuren aurka neurtu zituzten indarrak eta tamalez, finaletik kanpo geratu ziren 16-5 galdu ostean.

Partidu borrokatua izan zen larunbat arratsaldekoa emaitzak besterik erakutsi dezakeen arren.

Andoaindik etorritako Gaztelekuren bikotea Iñaki Artola eta Xabier Eguzquiza gazteek osatu zuten eta hauek jokatu zuten gorritz. Herriko bikotea berriz, Jon Ibisate eta Alex Echeverriak osatu zuten eta urdinez aritu ziren Intzako mutilak. Epaile lanetan aritu zen Peio Sarasola herritarra.

Partidua, Andoain aldera

Emaitzak argi eta garbi erakusten du andoaindarrak herritarrek baino gehiago izan zirela.

Partidu guztian zehar joan ziren aurretik, partidua erritmoa euren nahierara eramanez.



Tanto gogor eta luzeak lehiatu zituzten Intza eta Gaztelekuko lau pilotariek.

Hala ere, tanto luze eta piloteatuak jokatu zituzten, bi atzelariak benetan txukun ibili ziren partidua erritmoa eramanez eta aurrelariak zituzten aukerak aprobetxatzen saiatu ziren uneoro.

Azken finean, sufrimendu handiko partidua izan zen, horren erakusgarri andoaindarrak lortutako 14. tantoa. Alebinak izateko sekulako joa eta sufritzeko gaitasuna erakutsi zuten lau gaztelekoek eta

nekearen nekez, azkenean, Intzako pilotariei txapa azpira joan zitzairen pilota tanto oso luze baten ostean.

Ikusleak oso gustura

Gustura ziren Michelingo pilotalekura hurbildu ziren ikusleak, eta gaztetxoan ahallegina txalo zaparrada luze batekin saritu zuten.

Beste finalerdia Donostiako Alde Zaharra eta Zestoaren artean jokatu zen.

ARETO-FUTBOLA.-



Buenetxea eta El Punto tabernen arteko finalerdia oso borrokatua izan zen eta azkenean Buenetxeak egin zuen aurrera.

ISU eta Buenetxea finalera.- XXIX. Mosso Oroimenezkoaren finalerdiak jokatu ziren larunbat goizean Michelingo kirolgunean. Lehen finalerdian ISU Leihoak eta Txindoki aritu ziren aurrez aurre eta partidua honek ez zuen zalantzarako tarterik utzi, ISU 5-0eko emaitzarekin gailendu baitzitzaion Txindokiri. Bigarren finalerdian ere gol asko izan ziren eta El Puntok 7-2ko emaitzaz irabazi zion Buenetxeari. Hortaz, El Punto eta ISU Leihoak dira aurtengo finalistak. Mosso memorialaren finala datorren larunbatean jokatu da kiroldegian, 11:00etatik aurrera.

LABURRAK.-

Gonzalez garaile plater-tiroan

Buruntz-Azpi elkarteak ekainaren 10ean plater-tiro txapelketa antolatu zuen Oiarzungo Arkale instalakuntzetan. Giro onean, jaurtialdi desberdinak egin zituzten elkarteko eta herriko eskopetariak.

Azkenean, Jesus Mari Gonzalez izan zen irabazlea. Bigarren postua Javier Olasagasti eskuratu zuen eta Aitor Jauregi izan zen hirugarren.

Uretako festa ekainaren 26an

Lasarte-Oriako Kirol-zerbitzuak ekainaren 26an, San Pedro jailetako aurrekari bezala, Uretako festa antolatuko du kiroldegiko-igerilekuan. Goizeko 9:30etatik 12:00etara 5 eta 12 urte arteko haurrek puzgarri, txirrista eta hainbat gauzekin gozatzeko aukera izango dute.

Antolatzaileek ohartarazi dute, ekintza honetan igeri egiten dakiten ume eta gaztelekoek bakarrik parte hartu ahal dezaketela.

Uretako festarako sarrera doan izango da kiroldegiko bazkide diren haurrentzat; bazkide ez direnek 3,40 euro ordaindu beharko dituzte.



Agenda

Asteartea 19 eta asteazkena 20, Manuel Lekuona kultur-etxea, 19:00etan



Musika eta dantza erakustaldiak

Udal Musika eta dantza eskolako ikasleek kurtso amaierako kontzertuak eskainiko dituzte. Dantza, zein musikaz gozatzeko aukera izango da. Instrumentu ezberdinak eta Musika eskolako eskolako txikiak taula gainean izango dira eta asteazkenean, diploma banaketa izango da.

aldizkariko Axier Lopez eta Arramazka herriko taldeko Aroa eta Aitzol Lasak.

Bestelakoak

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 22

KTG Kanpaldietako bilerak:

17:00etan, Zumaia-Bakio DBH1

18:15ean, Bortziriak DBH2-DBH4

Andoain

Zinea

BASTERO KULTUR-GUNEA

Astelehena 18, 19:30ean eta 22:15ean

"Men in Black 3" filma eskainiko dute. Ikuslearen eguna, sarrera 3 euro. Gaztelaniaz.

Jaiak

KALEETAN

Ostirala 22-Asteartea 26

Andoaindarrek San Juan jaiak ospatuko dituzte.

Erakusketa

BASTERO KULTUR-GUNEA

Ekainaren 23a arte

Moises San Jose-ren argazkien erakusketa ikusgai. Berrogeita hamarreko Andoaingo herriari begirada.

Usurbil

Erakusketa

SUTEGI KULTUR-ETXEAN

Ekainaren 18tik 20ra, 11:30etik 13:30era

Hasierako Lanbide Prestakuntza Programako ikasleen lan erakusketa.

Lasarte-Oria

Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUAN

Igandea 24, 12:30ean

Alboka eta Alboka-txiki abesbatzak Txepetxa abesbatzak lagunduta, urte amaierako kontzertua eskainiko dute. Sarrera doan.

Dantza

OKENDO PLAZA

Ostirala 22, 20:00etan

Erketz EDTko heldu, zein gazteek eta Erketzen lagunak taldeak ikasurte amaierako emanaldia eskainiko dute. Doan.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 21, 20:00etan

Lan eta Lan Beti Lan antzerki taldeko kideek "Melocotón en Almibar" lana eskainiko dute.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ekaina osoa

Endika Elizechearen "Garuna Lantzen Unibertsoan" marrazki erakusketa ikusgai dago.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 15-Ostirala 22

Brancussi akademiako ikasleen margo eta marrazki erakusketa ikusgai izango da.

Astelehena 18-Ostirala 22

"Biladi Hadi, Hamaika begirada Palestina Euskal Herritik" proiektuko argazki eta irunzkinen erakusketa ikusgai izango da.

Jaiak

OKENDO PLAZA

Larunbata 23, 21:00etatik aurrera

San Juan bezperako Udal koorporazio-ko desfilea, San Juanetako zortzikoa, sokadantza eta sua izango dira.

Aurkezpena

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 20, 19:30ean

"Biladi Hadi, Hamaika begirada Palestina Euskal Herritik" proiektuko diskaurren aurkezpena egingo dute Argia

Herritarren txokoa

Sorgin Jaietako arropa salgai

Badatoz aurten ere Sorgin Jaiak. Jaiak iritsi bitartean asteazken eta ostiralero Okendo plazan izango gaituzue arropa saltzen 6:30etatik 8:30etara

Odola ateratzea

Hilabete honetan odol ateratzea gaur, ekainaren 18an izango da. Ohiko den moduan Osasun Zentroan izango da arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Euskara ikasleentzako laguntzak

2011-2012 ikasturtean euskara ikasten aritu diren lasarteoriarrek Udaleko Euskara Zerbitzuak ematen dituen diru-laguntzak jasotzeko aukera izango dute.

Eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira bulego ordutegiaren barruan. Ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan egin behar da diru-laguntza eskaera.

Era horretan, Udalak eskura jarriko dituen eskaera orriak, eta zinpeko

deklaraziorako ereduak ere aurkeztu beharko dira. Bestalde, eskaerari erantsi beharko zaizkio laguntzak jasotzeko eskatutako agiri guztiak.

Argibide gehiago nahi izanez gero, euskarako zerbitzura jo daiteke, 943 376 184, edo Udalaren web-orrian kontsultatu.

Zabaletako zozketan saritua

Zabaletako festetako zozketan saritua atera da 2.453 zenbakia. Honek Goiegin lau pertsonentzako afora irabazi ditu.

Sorgin dantzako entseguak

Sorgin dantzarako entseguak hasi dira. Astearte eta ostegunetan, 20etatik 21:00etara, egingo dira entsegu irekiak eta hauetan ohi bezala haur zein helduek parte hartu ahal izango dute.

Antolatzaileek azaldu moduan, eguraldi ona egin badu, entseguak Landaberri BHI-n egingo dira eta eguraldi txarreko egunetan, Landaberri-Garaikoetxea eraikinerako pasako dira saioak.

Haurren txokoa

Aurkitu 10 animalia hauek

O	M	U	R	L	A	Q	N	A	Q	B	X	J	M	V
S	W	F	W	O	E	W	W	L	J	V	C	V	B	K
W	R	K	R	V	J	M	E	T	S	M	C	Q	M	R
G	T	T	Z	T	I	U	B	O	F	A	X	F	S	S
Q	J	Z	E	A	S	D	I	K	Y	X	O	B	W	F
U	M	R	Z	R	F	D	X	A	Q	F	N	T	X	V
Q	U	E	E	D	D	F	L	T	Z	S	X	P	K	L
I	Q	I	N	I	G	E	L	A	D	E	P	F	E	O
K	X	G	A	A	H	R	L	G	K	I	U	A	Z	A
R	P	W	U	T	I	D	S	O	P	D	N	O	F	O
E	A	G	N	O	I	K	R	R	X	J	S	T	B	N
A	A	W	R	A	G	R	T	R	C	Q	B	S	D	A
X	H	A	P	O	A	F	B	I	A	J	K	A	Y	R
G	F	Y	A	E	T	A	H	A	P	K	A	V	I	R
Q	L	D	A	T	T	E	N	K	F	K	H	U	D	A

euskal.info

Bazenekien...

...txitar baten abestia 400 metrotara entzun daitekeela.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Pailazoen abentura Olinpikoa

■ Kirol egokitua oinarrian duen istorioa aurkeztu dute herriko Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ■ 'Piraten olinpiadak Txirlabeltza uhartean' da ipuinaren izena.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots herriko pailazoen euren abentura berria aurkeztu dute. Elkar argitaletxearekin argitaratutako azken ipuinean kirol egokitua oinarri duen istorio zirrargarria eta alaia dakarte. "Piraten olinpiadak Txirlabeltza uhartean" da ipuinaren izena eta aurkezpenean Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioko kirolari eta kideen parte hartzea izan zen. Hauen artean pailazoen azken ipuina babesten Patxi Fadrique herritarra izan zen. Azken hau saskibaloian, tenisean eta palan aritzen da oso emaitza onak lortuz.

Maider AZURMENDI

Herriko Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen euren azken lana aurkeztu berri dute. Kasu honetan haurrentzako ipuina da eta Elkarrek argitaratu du.

Mixel Muruak idatzi du "Piraten olinpiadak Txirlabeltzaren uhartean" istorioa eta marrazkiak, berriz Julen Tokero ilustratzaileak egin ditu ohi bezala.

Piraten istorioa

Ipuina Txirlabeltza uhartean kokatzen da. Bertan jokatzeko dira piraten olinpiadak eta Patakonek bertara joatea proposatzen die itsasontziko gaitzako kide guztiei. Denak pozez zorutzen jartzen dira olinpiadetan parte hartzearekin baina poza amaitzen da Patxijaik joateko asmorik ez duela taldearen aurrean esaten duenean.

Patxijaik inork ikusten ez dituen gauzak ikusten dituela esan daiteke. Olinpiadei buruz ikuspegi berezia du berak, batek irabazteko besteek galtzea beharrezkoa da

hauetan eta ez du atsegin izan ere lehenengo bakarrik egoten da pozik. Horrela jolastera joatea erabakiko dute protagonistek, araurik gabe ondo pasatzeko helburuarekin.

Kirol egokitua gertutik

Pirata kuadrilan denetarikoa pertsonak daude, Kaxianok ez du ikusten, Amaia Begiluze gorra da... Ipuinaren mezua nolabait hala deitu badaiteke, pertsonak bertuteen arabera baloratu behar direla da eta ez ordea, dituzten gabezien arabera.

Hori da hain zuzen Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioan lantzen den esparrua, gizartearen ideai hau zabaltzeko lan eginez eta horregatik bat egin dute herriko pailazoen azken istorioarekin.

Kirolarien babesa

Federazioko hainbat kide izan zen ipuinaren aurkezpenean Lasarte-Oriako pailazoen batera. Euren kirol emaitza bikainengatik lortutako domina eta guzti azaldu ziren gazteenak. Kirolari hauen artean



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen batera Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioko kideak, Patxi Fadrique tarteko.

Patxi Fadrique lasarteoriatarra izan zen.

Patxin eta Potxin pailazo bikoteko kide zen Fadrique eta musikaria. Emanaldi batek bueltan, istripua izan eta gerotik kirolari egin da hainbatetan Txintxarri-n jaso moduan. Saskibaloian, palan eta tenisean aritzen da oso maila onean eta horren lekuko dira jasotako emaitzak eta sariak.

Pailazoen azken abentura koloretsu eta alai honekin kirol egokitua hurbildu nahi zaie etxeko txikienei eta pertsonen bertuteak gabezien gaitzengatik daudenaren mezua zabaldu nahi dute istorio honen kontakizunarekin.



Pailazoen batera kirolari gazteenek euren dominak erakutsi zituzten aurkezpenean.

GORENAK
SAGARDOEN EUSKAL SELEKTZIOA

GORENAK

GUZTIOK NORABIDE BEREAN
EGITEN DUGU ARRAUN.
SEKULAKO EMAITZAK LORTUZ.
LEHEN-LEHENAK IZATEKO,
HORREGATIK DARAMAGU SAGARDOEN
EUSKAL SELEKTZIOAREN TXAPEL BELTZA.

WWW.SAGARDOGORENAK.COM

GORENAK

GUZTIOK NORABIDE BEREAN
EGITEN DUGU ARRAUN.
SEKULAKO EMAITZAK LORTUZ.
LEHEN-LEHENAK IZATEKO,
HORREGATIK DARAMAGU SAGARDOEN
EUSKAL SELEKTZIOAREN TXAPEL BELTZA.